Bestelako Xedapenak

OSASUN SAILA

642

246/2008 EBAZPENA, abenduaren 31koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Santa Marina Ospitaleko zuzendari gerentearena, kobratzeko dauden hainbat eskubide deuseztatzen dituena.

Norbanako batzuei oraindik kobratzeko dauden hainbat eskubideren gainean zerbitzu erakunde honetan dauzkagun datuak ikusi dira.

Oinarritzat hartu dira egitate hauek

AURREKARIAK

I.– 2003ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitarteko aldia ordaindu behar duten hirugarrenen fakturazioa kobratzeko kudeaketa aztertu du zerbitzu erakunde honek, eta ikusita oraindik hainbat eskubide kobratzeke dagoela, egokitzat jo du kobratzeko modukoak direnak ezinezkoenengandik bereiztea.

II.– Administrazio-jardun guztiak bete dira, ondoren erreklamaziorik egiteko eskubiderik izan ez dadin, eta ebazpen honen eranskinean jasota daudenak, horiexek dira ezin kobra daitezkeenak (kobraezinak).

Eta kontuan izanik ondorengo

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 13. artikuluak erakunde publikoaren menpe dauden zerbitzu sanitarioetako erakundeei ekonomia- eta finantza-autonomiaren eta kudeaketaren printzipioa legez aitortzen die.

Bigarrena.– Aipatutako autonomia printzipio hori zehaztearren, 19.2 artikuluak honela dio: «Hauexek dira diruzaintza bakoitzaren eginkizunak: ente publikoaren eskubideak sartu eta betebeharrak ordaintzea, dagokion erakundearen kontura; eta araubide juridikoak, aurrekoekin lotuta, ezartzen duen beste edozein eginkizun. [...]».

Beraz, aurreko paragrafoan ezarritakoari lotuta dator ebazpen honen aurrekarietan agertzen den moduko garbiketa egitea.

Eta, ildo horretatik, jasota geratu behar du eranskinean datozen kobratu ezinezko eskubide horiek, Santa Marina Ospitaleko Ekonomia Kudeaketako zuzendaria-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

642

RESOLUCIÓN 246/2008, de 31 de diciembre, de la Directora Gerente de Hospital de Santa Marina de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se acuerda la anulación de derechos pendientes de cobro.

A la vista de los datos obrantes en esta organización de servicios sobre derechos pendientes de cobro de particulares.

Con base en los siguientes

HECHOS

I.– Habiéndose procedido por esta organización de servicios al análisis de la gestión de cobro llevada a cabo respecto a la facturación a terceros obligados al pago del periodo comprendido entre 01-01-2003 al 31-12-2003 y comprobada la existencia de derechos pendientes de cobro, se estima oportuno deslindar los todavía perseguibles de aquellos otros de realización imposible.

II.– Llevada a cabo toda la actuación administrativa para no decaer en el derecho a efectuar la reclamación y resultando de realización imposible (incobrables) los que figuran en el anexo a esta resolución.

Y de conformidad con los siguientes

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– El artículo 13 del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del ente público Osakidetza–Servicio vasco de salud, reconoce legalmente el principio de autonomía económico financiera y de gestión para las organizaciones de servicios sanitarios dependientes del ente público.

Segundo.– Como concreción del referido principio de autonomía, el artículo 19.2 especifica que «Son funciones de cada Tesorería ingresar los derechos y pagar las obligaciones del Ente Público con cargo a la organización correspondiente, así como cualquier otra función que establezca el ordenamiento jurídico relacionada con las anteriores […]».

Por tanto, subsumible en el apartado anterior la facultad de proceder a un expurgo del tipo referido en los hechos de esta resolución.

Y, en este sentido, ha de hacerse constar que los derechos de realización imposible contenidos en el anexo son los que como tal se certifica en Certificación del

ren egiaztagirian horrela egiaztatuak izan direla 2008ko abenduaren 31n.

Hirugarrena.– Aipatu Estatutuetako 18.1. artikuluaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren kudeaketa-erregimena izango da zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagokiona «Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiari buruzko legeekin bat etorriz».

Halaber, aipatutako 19. artikuluak, 3. paragrafoan honakoa ezartzen du: «Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 24.1.d) atalean ezarritakoa betez, ente publikoaren jardueraren ondorioz sorturiko diru-sarrera guztiak, eta bereziki osasun-zerbitzuak ordaintzera beharturik dauden hirugarrenei emateagatik sorturikoak zuzenbide pribatuko diru-sarreratzat joko dira.».

Laugarrena.– Aipaturiko artikuluetatik ondorioztatzen da egokia dela Kode Zibileko 1932., 1936. eta 1961. artikuluetara jotzea; honela diote: «Eskubideak eta ekintzak preskripzioz iraungitzen dira pertsona mota guztien kaltetan, baita pertsona juridikoen kaltetan ere, legeak dioen moduan [...]». «gizakien arteko merkataritzan dauden gauza guztiek preskribatu ahal dute» eta «ekintzek legeak markatutako denbora pasatzearen ondorio soilez preskribatzen dute».

Eta, hori dela eta, zerbitzu sanitarioa hartu izanagatik ordaindu behar duten hirugarrenei faktura erreklamatzeko ekintza bada aldarrikatzen den eskubidea, aipatu lege-gorputz horren 1966.3. artikulua aplikatu beharko da eta, beraz, administrazio-jardunik gabeko 5 urteko epea kontabilizatu.

Betiere kontuan hartuta 1973. artikuluak aurreikusten duela preskripzioaren etenaldia «epaitegien aurrean eskubide horri buruz jarduteak, hartzekodunaren judizioz kanpoko erreklamazioa dela eta, edota zordunaren ekintzaren bat dela eta zorra aitortzeko».

Bosgarrena.– Hemen behin baino gehiagotan aipatu diren jarduketak ebazteko erantzukizuna zuzendari gerenteari dagokio, hain zuzen ere, eskumen horiek ematen baitizkio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Estatutuak onartzeko azaroaren 11ko 255/1997 dekretuaren 15.1. artikuluak.

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean jasotakoari jarraituz, kobratzeko dauden eskubide horiek deuseztatzeko erabakia hartzea, kobraezinak direlakoan.

Bigarrena.– Ebazpena diruzaintzari eta fakturazio-zerbitzuari jakinaraztea, dagozkion xedeetarako.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Director de Gestión Económica del Hospital Santa Marina, de fecha 31-12-2008.

Tercero.– A la vista del artículo 18.1 de los Estatutos enunciados, el régimen de gestión de Osakidetza-Servicio vasco de salud será el aplicable a los entes públicos de derecho privado «de acuerdo con la legislación de la Comunidad Autónoma en las materias propias de la Hacienda General del País Vasco».

Asimismo, el referido artículo 19, en su apartado 3 determina que «De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 24.1.d) de la Ley de Ordenación sanitaria de Euskadi, todos los ingresos que se generen en el ente público como consecuencia de su actividad y, en especial, por la prestación de servicios sanitarios a terceros obligados al pago de los mismos, tendrán la consideración de ingresos de derecho privado».

Cuarto.– De los artículos enunciados, se infiere que resulta procedente efectuar la remisión a los artículos 1932, 1936 y 1961 del Código civil, a cuyo tenor «Los derechos y acciones se extinguen por la prescripción en perjuicio de toda clase de personas, incluídas las jurídicas, en los términos previstos por la ley […]», «Son susceptibles de prescripción todas las cosas que están en el comercio de los hombres» y «Las acciones prescriben por el mero lapso de tiempo fijado por la ley».

Y, en base a ello, si estamos ante un derecho cuyo contenido es el de una acción reclamación por facturación a terceros obligados al pago de una prestación sanitaria, habrá de aplicarse el artículo 1966.3 del mencionado cuerpo legal y, por tanto, contabilizar el transcurso de 5 años sin actuación administrativa.

Siempre teniendo en cuenta al respecto que el artículo 1973 prevé la interrupción de la prescripción «por su ejercicio ante los Tribunales, por reclamación extrajudicial del acreedor y por cualquier acto de reconocimiento de la deuda por el deudor»

Quinto.– La competencia para resolver sobre las actuaciones a que se viene haciendo referencia, será el Director Gerente, en ejercicio de las atribuciones del artículo 15.1, del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

RESUELVO:

Primero.– Acordar la anulación de los derechos pendientes de cobro relacionados en el anexo, por considerarlos incobrables.

Segundo.– Comunicar la presente Resolución a la Tesorería y al Servicio de Facturación a los efectos oportunos.

Tercero.– Ordenar la publicación en el BOPV de la presente Resolución.

Laugarrena.– Ebazpena eman den egun horretan bertan hasiko da ondorioak izaten.

Bilbao, 2008ko abenduaren 31.

Santa Marina Ospitaleko zuzendari kudeatzailea,
M.ª JOSÉ ALBIZUA MANRIQUE.

ERANSKINA

Josu Mirena Etxegarai Atela jaunak, Bilboko Santa Marina Ospitaleko Ekonomia Kudeaketako zuzendari den aldetik,

ZIURTATU DU:

Bost urteko preskripzio-epea igarota, administrazio-jardun guztiak bete dira, ondoren erreklamaziorik egiteko eskubiderik izan ez dadin, eta ebazpen honen eranskinean jasota daudenak, horiexek dira ezin kobra daitezkeenak (kobraezinak):

Faktura zk.	Faktura eguna	Erakundea	Guztira (euroak)
10533283	31-03-2003	GSIN	209,75
10612566	30-11-2003	GSIN	169,59

Guztira, 379,34 euro.

Jasota gera dadin egiten da ziurtagiri hau, Bilbon, bi mila eta zortziko abenduaren hogeita hamaikan.

Cuarto.– Los efectos de la presente Resolución se producirán desde el día de la fecha en que se dicta.

En Bilbao, a 31 de diciembre de 2008.

La Directora Gerente del Hospital Santa Marina,
M.ª JOSÉ ALBIZUA MANRIQUE.

ANEXO

Josu Mirena Etxegarai Atela, como Director de Gestión Económica del Hospital de Santa Marina de Bilbao

CERTIFICA

Que habiendo transcurrido el plazo de prescripción de 5 años y llevada a cabo toda la actuación administrativa para no decaer en el derecho a efectuar la reclamación, resultando de realización imposible (incobrables) los que figuran en la presente relación:

N.º Factura	Fecha factura	Entidad	Total (euros)
10533283	31-03-2003	INSS	209,75
10612566	30-11-2003	INSS	169,59

Ascienden a un total de 379,34 euros.

Y para que conste, expido el presente Certificado en Bilbao a treinta y uno de diciembre de dos mil ocho.